

Hiru modulu daudela ikusi genuen, topografian banaketa eredu esanguratsuari erantzuten ez diotenak, oraingoz bederen. Modulu hauen artean Pedro-Bernardo Villareal de Berrizek⁸¹ (1736) planteatzen duen harreman baliokidea dago, hau da, neguko sarioa edo korta osoa 126 estatu edo besoko⁸² erradiokoa dela zioen. Udako sarioari dagokionez, bi modulu daudela zioen, txikiena negukoaren erradioaren erdikoa, eta handiena neguko erradioaren bi herenekoa. Airetiko argazkitik abiatuta bereizi dugun proportzioak ez dio zehazki arestian azaldutakoari erantzuten, baina hori ez da esanguratsua kontuan baditugu proportzioen arteko hurbiltasuna eta haiek neurtzeko garaian egindako akatsak zuzendu ez direla, ez baitira bertatik bertara eta sistematikoki kontrastatu. Ormaetxeak eta Zabala⁸³ Bizkaiko 1483ko sarioei buruz egindako lanak (1988) bi modulu baizik ez ditu jasotzen, negukoa eta udakoa, Legarçak 1400. urteko eta aurreko sarioei begira egindako azterketan jasotzen duen modura. Zior-tza-Bolibar, Dima eta Ibarruri aldean soilik udako sarioiak aipatzen dituzte, eta hauetan proportzio handiena aldatu egiten zen besteekiko, hau da, neguko sarioien erradio hipotetikoaren hiru laurden hartuko zuen.

Se ha visto que hay tres módulos sin una distribución topográfica relevante para su significación, por el momento. Entre estos módulos hay una relación equivalente a la que plantea Pedro-Bernardo Villareal de Berriz⁸¹ (1736) donde establece que el sel de invierno o cortaofoa es de 126 estados o brazas⁸² de radio. Para el de verano recoge que hay dos módulos, el menor es la mitad del radio de invierno y el mayor de ellos es dos tercios del radio de invierno. Esta proporción no es exactamente la que hemos hallado a partir de la medida hecha sobre la ortofoto, lo que no es significativo dada la proximidad entre las proporciones y la falta de corrección de error de medida, ya que no están contrastadas sistemáticamente en campo. El trabajo de Ormaetxea y Zabala⁸³ (1988) sobre los seles de Vizcaya de 1483 solo presentan dos módulos, invierno y verano semejante al resultado que se obtiene en Legarça para el año 1400 y anteriores. En la zona de Cenarruza, Dima e Ibarruri citan solo seles de verano donde el mayor de ellos cambiaría la proporción respecto al otro, pasando a ser tres cuartos del hipotético radio de invierno.

L. Valdés

D.1.2. **Zornotza-Lemoa atala (Bizkaia)**

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantziakoa: Corsán-Corviam
Construcción S.A

D.1.2. **Tramo Amorebieta-Etxano-Lemoa (Bizkaia)**

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: Corsán-Corviam
Construcción S.A

Intervention carried out all over the site, leaving no room for further investigation, since the results proved to be of scarce historical-archaeological interest.

2009ko urritik 2011ko abenduan amaitu arte burura eramandako lur mugimenduen gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak ez ziren batere interesgarriak izan historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Control arqueológico de los movimientos de tierra llevados a cabo desde octubre del año 2009 hasta su finalización, en diciembre de 2011. Los resultados del mismo han sido de escaso interés histórico-arqueológico.

R. Rodríguez Calleja

⁸¹ *Maquinas hidraulicas de Molinos y herrerias y gobierno de los arboles y montes de vizcaya*. Bigarren liburukia. Sociedad Guipuzcoana de Edición y Publicación elkartearen 1973ko fakzimilaren argitalpenetik hartua.

⁸² Estatu edo beso bakoitza 7 oin arruntaren baliokidea da, 0,28 m luze.

⁸³ Ormaechea Hernaiz, A. M^o eta Zabala Uriarte, A., «Espacios ganaderos en la Vizcaya del Antiguo Régimen» *Filosofía eta Letrak fakultatearen 25. urteurrenean*. II Estudios de Geografía e Historia, Deustuko Unibertsitatea 1988, 401-428.

⁸¹ *Maquinas hidraulicas de Molinos y herrerias y gobierno de los arboles y montes de vizcaya*. Libro segundo. De la edición facsimil de 1973 de la Sociedad Guipuzcoana de Edición y Publicación.

⁸² Cada estado o braza es de 7 pies comunes equivalentes a 0,28m.

⁸³ Ormaechea Hernaiz, A. M^o y Zabala Uriarte, A., «Espacios ganaderos en la Vizcaya del Antiguo Régimen» en 25 años de la Facultad de Filosofía y Letras. II Estudios de Geografía e Historia, Universidad de Deusto 1988, 401-428.